

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	BIDAIARI-LEKUKO ETA MOTOR-KUTXAKO GAILU ELEKTRIKOEN MANTENTZE-LANAK	Iraupena	30
		Espezifikoa	
Kodea	UF1103		
Lanbide-arloa	GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK		
Lanbide-eremua	Ibilgailuen elektromekanika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ibilgailuen sistema elektriko eta elektronikoaren mantentze-lanak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Ibilgailuen zirkuitu elektriko osagarriak	Iraupena	150
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Argizatze- eta seinaleztatze-sistemen mantentze-lanak	Iraupena	50
	Sare multiplexatuen mantentze-lanak		40
	Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioa ibilgailuen mantentze-lanetan (Zeharkakoa).		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0626_2: IBILGAILUEN ZIRKUITU ELEKTRIKO OSAGARRIEN MANTENTZE-LANAK EGITEA gaitasun-ataleko LB1, LB3 eta LB4 lanbide-burutzapenekin, zirkuitu elektriko osagarriei dagokienez.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Ibilgailuaren bidaiari-lekuko eta motor-kutxako gailu elektrikoaren funtzionamendua deskribatzea eta izan ditzaketen matxurak identifikatzea, diagnostikoko teknikak eta ekipamendu egokiak erabiliz.

EI1.1 Gailu osagarriak aztertzea —eta sistemen osakerak eta funtzionamendu-ezaugarriak azaltzea—, bai eta gailua osatzen duten elementuak ere, eskemak interpretatuz eta eta zirkuituen krokisak marraztuz, hala badagokio.

EI1.2 Funtzionamendu-matxurak aurkitzea; horretarako, kausak aztertzea eta matxuren efektuak erreproduzitzea.

EI1.3 Sistema osatzen duten elementuak muntatzea eta desmuntatzea, matxuratuta dagoen elementua ordeztu ahal izateko.

EI1.4 Konponketetan izandako esperientziak jasoko dituen historia-fitxategi bat sortzea, etorkizuneko matxuretan lana errazagoa izan dadin.

A2: Bidaiari-lekuko eta motor-kutxako gailu elektriko osagarrien elementuak edo multzoak mantentzea eta ordezte, eta lehengo eraginkortasun-kondizioak leheneratzea.

EI2.1 Elementu akastuna ordeztu egiten da, eta sistemaren funtzionaltasuna leheneratzen; funtzionaltasuna bermatzen da.

EI2.2 Inguruko lan-eremuan kalterik eragin gabe esku hartzen da; ongi desmuntatzen eta muntatzen dira, kalterik eragin gabe, hornidurak, apaingarriak eta abar.

EI2.3 Zirkuitu eta ekipoen gaineko parametroen kontrolak eta doikuntza, araua betetzen dela ziurtatuz egiten dira.

EI2.4 Ekipoen, lan-erreminten eta erabiltzen diren instalazioen oinarriko mantentze-lanak espezifikazio teknikoaren arabera egiten dira.

A3: Zirkuitu elektriko osagarrietan ekipo berriak muntatzea, horretarako behar diren aldaketak edo instalazioak eginez, araudiaren arabera.

EI3.1 Egiaztatzen da egindako aldaketak ez duela anomaliarik eragiten jatorrizko instalazioetan, ez eta eragin negatiborik ere beste sistema batzuen funtzionamenduan (zarata elektronikoak, masa-begiztak eta abar).

EI3.2 Egiaztatzen da hautatutako eroaleak, egindako loturak eta gainerako elementu elektrikoak espezifikazio teknikoaren arabera direla.

EI3.3 Egindako aldaketak edo instalazio berriak lege-alderdi guztiak eta fabrikatzailearen espezifikazioak betetzen eta errespetatzen dituela egiaztatzen da.

EI3.4 Egiaztatzen da fabrikatzaileak ezarritako espezifikazioen arabera funtzionatzen duela ekipo instalatuak.

EI3.5 Instalazioa karrozeriaren gainean kokatzen eta finkatzen da egiaztatzeko kokapenaren ondorioz ez duela zaratarik eragingo eta ez dela hondatuko.

Edukiak

1. Bidaiari-lekuko gailu elektrikoak

- Sarraila elektromagnetikoak ateetan
- Beira-jasogailuetako sistema elektrikoak
- Kortesia-argiak eta bidaiari-lekuaren barneko argiztapena
- Zigarreta-pizgailua eta erlojua
- Segurtasun-uhaletarako alarma-sistemak
- Alarma-sistemak eta lapurreten aurkako sistemak

2. Motor-kutxako gailu elektrikoak

- Erregai-ponpa elektrikoak
- Hozteko haizagailu-motorra
- Txinparta-banagailua, bujia-kableak
- Diesel-motorretako berokuntza-bujiak
- Enbrage elektromagnetikoa
- Balazta elektromagnetikoa

3. Kableak eta babesak

- Kable elektrikoak. Zerrenda babesleak. Lokailuak.
- Konexioen zentrala eta fusible-kutxa
- Eskema elektrikoak
- Masa-zirkuitua
- Fusibleak eta intentsitate-mugatzaileak
- Perturbazioak eta interferentziak ezabatzea

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ibilgailuen sistema elektriko eta elektronikoen mantentze-lanak